

# ZERUMUGA BERRI BAT EMF-RENTZAT

Azken batzarrean, federazio hau osatzen duten kide guzti-  
iei kezka eragiten dien gai baten inguruko eztabaida izan  
zen, modu erabat monografikoan ia. Gai hau sarritan jarri  
izan da mahai gainean eta hainbat eragileren arteko (fe-  
derazio autonomikoa, herrialde bakoitzeko federazioak,  
klubak zein mendizaleak) eztabaida sorrarazi izan du.

Azken bi urteetan batzarraren agindua egungo aseguru  
polizaren baldintzak hobetzea zen, mendizaleentzat onu-  
ragarria zela iritzita eta estaldura berrietara egokitze  
ahaleginean. 2018an eskaintza ezberdinak aztertzeko as-  
moa agertu zen, eta lehiaketa bat abiatzea erabaki, aseguru  
etxe bakoitzak bere eskaintza egin zezan. Kontuan hartu  
behar da 34000 aseguru poliza tramitatu behar izaten di-  
tuela aseguru etxeak, hots, 34000 mendizalaren kezka  
asetu, 2 milioi eurotik gorako kontratazio bolumenarekin.  
Prozesu konplexua, lehiaketa gardena bideratzeko, batetik,  
eta egungo aseguru polizaren baldintzak hobetzen direla  
bermatzeko, bestetik. Prozesu aitzindaria izan dela esan  
daiteke, arlo guztietan gainera (euskal kirolerako gainerako  
federazioekin alderatuz eta baita estatu mailako mendia fe-  
derazioei erreparatuz). Era berean, prozesu aberasgarria  
izan da benetan, eta legegintzaldi guztietan errepikatze  
aukera ere kontuan hartzekoa litzateke.

Eskakizunez beteriko mundu batean bizi gara, guztiok  
dauzkagu eskubideak eta badirudi betebeharrak ez dauka-  
gula sekula. Egindako ikerketen artean bazegoen bat  
klubek eta federazioek euren ekintzen egutegia aseguru  
etxearekin komunikatzearen ingurukoa. Arlo honetan utzi-  
keria nabarmena dela atera du argitara aipatu ikerketak,  
Arabako datuak bereziki kezkarriak izanik gainera. Le-  
henengo ondorioa berehalakoa da: 266 klubek gutxieneko  
betebehar batzuk betetzen ez badituzte, nola nahi dugu  
34000 federatuek istripu poliza bat eta gaixotasun poliza  
bat elkarrengandik bereiztea? Nola eskatuko diegu istri-  
puak jakinarazi edo erreklamazioak bideratzeko protokolo  
bat errespetatu dezaten, zuzendaritzan dauden pertsonen  
euren betebeharrak betetzeko interesik ez badaukate?

Baloratu den beste argumentu bat asetasun mailarena  
izan da, azken 6 urteetan izandako kezka eta erreklama-  
zioak aztertuz. Balantzaren beste aldean, aipagarria da  
kasu bakanetan deitzen duela federatu batek istripu bat  
izan ostean jasotako tratua zein arreta medikuagatik es-  
kerrak emateko.

Elkarrekin hogeita hamar urte egin ostean, EMF-ren  
batzarrak aseguru etxez eta bitarteko enpresaz aldatzea  
erabaki du. Eskerrak eman nahi dizkiogu Josetxo Lunari  
eta Helvetiari urte hauetan guztietan egindako lanagatik.  
Aurrerantzean, Adartia eta Mapfre-ren eskutik, ibilbide  
luzeko gure xendan etapa berri bat etorriko da. Etorki-  
zuna baikortasunez begiratzea dagokigu, eta baita gure  
beharretara ondoen egokituko den xenda aukeratu  
dugun konfiantza izatea ere. Zuzendaritza Batzordeak  
guztion iritzia entzuten eta lanean gogor jarraituko du  
helburu hau egia bilakatu dadin.

PRESIDENTE DE  
LA EMF-FVMEMF-FVMKO  
LEHENDAKARIA

José Ramón Alonso

# UN HORIZONTE NUEVO PARA LA EMF

En la última asamblea se abordó de forma monográfica  
una de las grandes preocupaciones de todo el colectivo  
que integra esta federación, un tema que durante los úl-  
timos años ha sido recurrente y ha generado debate a  
todos los niveles (autonómico, territorial, en los clubes y  
entre los mendizales).

Durante dos años el mandato de la asamblea fue me-  
jorar el condicionante de la póliza existente, entendiendo  
que era bueno y se trataba de actualizarlo con nuevas  
coberturas. En 2018 surgió un interés por valorar diferen-  
tes ofertas: abrir un procedimiento concursal en el que se  
recogiesen los intereses de las diversas compañías para  
manejar un volumen de contratación no inferior a 2 mi-  
llones de euros y, sobre todo, en el que se defendan las  
preocupaciones de 34 000 personas ha sido un proceso  
cuando menos complejo, tanto para garantizar un con-  
curso en igualdad de condiciones como para velar por lo  
que ya tenemos y mejorarlo. Incluso podríamos decir que  
ha sido pionero en todos los ámbitos (tanto federaciones  
deportivas vascas como de montaña estatales). Asimis-  
mo, ha resultado un proceso enriquecedor y que habría  
que estimar la necesidad de reeditar cada legislatura.

Nos movemos en un mundo de exigencias, todos te-  
nemos derechos y parece que obligaciones más bien  
nunca. Una de las investigaciones abordadas estaba  
relacionada con el compromiso que tienen los clubes y  
las federaciones de comunicar los calendarios de acti-  
vidades al seguro. Los resultados han sacado a la luz  
la dejadez generalizada existente a este nivel (siendo  
los datos de Araba alarmantemente bajos). La prime-  
ra conclusión es evidente: si somos incapaces de que  
266 clubes cumplan un mínimo de obligaciones ¿cómo  
podemos pretender que 34 000 federadas/os sepan  
distinguir entre una póliza de accidentes y una de en-  
fermedad? ¿Cómo podemos exigirles que respeten un  
protocolo para notificar los accidentes o transmitir las  
reclamaciones si siquiera los propios directivos tienen  
interés por cumplir con sus deberes?

Otro argumento valorado ha sido el nivel de satisfac-  
ción, centrándolo en el tipo de quejas y reclamaciones  
existentes durante los 6 últimos años (en el otro lado de  
la balanza, en contadas ocasiones un federado llama para  
agradecer el trato recibido o la atención médica prestada  
cuando ha sufrido un percance).

Tras casi 30 años de travesía juntos, la asamblea de la  
EMF ha decidido cambiar de compañía de seguros y de  
empresa mediadora. Damos las gracias a Josetxo Luna  
y Helvetia por todos estos años. Ahora, de la mano de  
Adartia y Mapfre, empieza una nueva etapa en nuestro  
sendero GR, y entre todas y todos vamos a mirar al futuro  
con optimismo y en la confianza de que seremos capaces  
de configurar la senda que mejor se adapte a nuestras  
necesidades. La Junta Directiva seguirá escuchando y  
trabajando duro para que sea una realidad.